

**313/2022 EBAZPENA, MARTXOAREN 21EKOA, OSAKIDETZA – EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREKO ZUZENDARI GERENTEARENA, BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREKO GERNIKAKO ETA BERMEOKO HELDUEN OSASUN MENTALEKO ZENTROETAKO UNITATE-BURU LANPOSTUA BETETZEKO DEIALDIAN ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ONARTZEN DUENA**

### **AURREKARIAK**

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearen urriaren 20ko 766/2021 Ebazpenaren bidez, argitara ematen da Gernikako eta Bermeoko Helduen Osasun Mentaleko Zentroetako osasun mentaleko unitate-buruaren lanpostua lehiaketa bidez betetzeko deialdia (2022ko urtarrilaren 19ko EHAA, 12. zk., eta 2022ko urtarrilaren 26ko BOE, 22. zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, 15 egun balioduneko epea ezartzen da eskabideak aurkezteko, deialdiaren ebazpena dagokion aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe hori 2022ko otsailaren 16an amaitu da.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Deialdiaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaituta, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen zerrenda onartzeko, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Ebazpen horretan Osakidetzaren web-orrian argitaratzeko aginduko du, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko da, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak administrazio-bidean aurkezteko.

Horregatik guztiagatik, indarrean dagoen legeriak pertsonalaren arloan ematen dizkion ahalmenez baliatuz, Osakidetzako Estatutu Sozialen 15.1 e) artikulua arabera (azaroaren 11ko 255/97 Dekretua, azaroaren 14ko EHAA, 219. zk.), eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez, honako hau,


### **EBAZTEN DUT:**

Lehenengoa.- Onartzea Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean Gernikako eta Bermeoko helduen OMZetarako Osasun Mentaleko Unitate-buru lanpostua betetzeko lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda (I. eranskina).

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Ebazpen honen aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Zuzendaritza Gerentziari, 10 egun balioduneko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2022ko martxoaren 21ean



Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Zuzendari gerentea  
**CARLOS PEREIRA RODRIGUEZ**

**I. ERANSKINA**

**GERNIKAKO ETA BERMEOKO HELDUEN OSASUN MENTALEKO ZENTROETAKO  
OSASUN MENTALEKO UNITATEBURUA**

**BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK**

**Onartuak:**

.- Argiñe Mingo Idoyaga

**Baztertuak:**

Inor ez